

www.noaia.com

Noaia!!!



Ostiral honetan,
Santa Ageda bezpera



Protestaldiak Ingemarren

Langileek kezkatuta jarraitzen dute

Sarreraren salmenta

bastero KUTXA

IBENKUTXA KUTXAZARAAA
943 00 12 00
www.kutxa.net

bastero
KULTURGUNEA

Tanttaka taldea

"No me hagas daño"

Kutxa Donostia Hiria literatura saria - Antzerkia 2010

OTSAILAK 4, Ostirala, 21:30h Auditorioan

ANDOAINO UDALA Gizekoeko Foru Aldundia Info: 943.303.540 www.andoain.org

Marije

Arropa danda

Etxebeste, 3 - 943 36 11 06 - USURBIL

Interneten ere aurkituko gaituzu NOAUA! Usurbildarren zerbitzura

twitter
<http://twitter.com/noaua>

facebook
<http://www.facebook.com/noaua>

You Tube
<http://www.youtube.com/noauatb>

Noaua!!
<http://www.noaua.com>

Albistea iruditan!!

Garaipen bikoitza eskuratu du Amador Granadosek

Asteburuan Palma de Mallorcan Ajokatu den Pistako Txirrindularitza Egokituko Espainiako Txapelketan parte hartu dute Euskadiko Selekzioaren izenean, Guillermo Prieto Olaberriakoarekin batera, Amador Granados eta Jon Sarasua usurbildarrek. Granadosek garaipen bikoitza eskuratu du. Batetik, kilometroko proba irabazi zuen hamabigarrenez eta bestetik, baita jazarpen proba ere bigarren aldiz, C3 mailan.

Munduko Txapelketari begira Sarasua laugarren postuan sailkatu zen aipatu bi saioetan. Prietok brontzeko bi domina jaso zituen. Banakako emaitzekin batera, aipagarria da baita, selekzio gisa lortutako garaipena. Taldekako abiadura proban ere sailkapen buruan amaitu zuten, Granadosek, Sarasuak eta Prietok, Sevilla eta Murziako taldeen aurretik. Hurrengo hitzordua Italian dute, Pistako Munduko Txapelketan parte hartuko dute, martxoaren 11tik 13ra.



ESPAINIAKO TXAPELKETAN EMAITZA ONAK ESKURATU DITU EUSKADIKO SELEKZIOAK.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Telefono zenbakia: 943 36 03 21

E-posta: elkartea@noaua.com

www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarrégi ikastola.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

EUSKARAZKO HEDABIDEEN EDITORIALA **4. OR.**

INGEMARREN GORABEHEREK ETENIK EZ **5. OR.**

UDARREGI IKASTOLA AZTERGAI **8. OR.**

FLASH MOB ERRALDOIA ZUBIETAN **14. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 - ASTEASU

☎ **943 69 68 52 - 620 800 186**

**BENTA
TABERNA**

**Oilasko erreak
Ogitartekoak**

San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05

TAXI

607 92 87 70

943 00 44 83

Angel (24h) USURBIL



NEREA ZINKUNEGI

Aire garbiak bira gaitzan hasi lehenbailehen dantzan!!!

Pentsatzen jarrita, mamuz betetzen ari zaizkigula bizitzak etorri zait burura, abeeerrrr; osasunaren mamua, lanaren mamua, maitasunaren mamua, krisiaren mamua, banketxeen mamua, erraustegiaren mamua, etxebizitzaren mamua, kartzelaren mamua, gizonaren mamua, hezkuntzaren mamua, familiaren mamua, bakardadearen mamua, lagunaren mamua (edo lagun mamua), gudaren mamua, eliz mamuak, merkatuaren mamua, petrolioaren mamua, publizitatearen mamua, emakumearen mamua, bakearen mamua...bukatu ez eta mamu gehitxo dagoeneko. Mamu arrosario erraldoi batek inguratzen gaitu eta gu "esto es lo que hay" lasai arrayo esanez.

Ikasturte hau hasi genuenetik bigarren aldiz jaitsi digute soldata. Baina mamuz inguratuta gaudenez pentsatzen duguna ia belarrira esaten diogu elkarri, badaezpada ere, mamuak enteratu ez daitezen. Eta, ze

gauza aizu!!! Ia mamuak enteratu ere egin gabe egun osooko greba egin dugu urtarrilaren 27an, harrapazank!!! Eta zertarako???

Pentsa lezake batek ilun antzera nabilenik, ba ez, ez daukat betarik!!! Gertuko mamuak izutzen hasi beharko dugu momentuz, horma mutuak kolorez bete, leihoak ireki aire garbiak bira gaitzan, barrutik zikina denak zikinkeria dariola jarraituko du (bizitza osoa dauka purgatzeko) eta barrutik garbia denaren alboan ibiltzea gustagarria izango da.

Gezurra dirudien arren, udaberria bueltan da eta martxoaren 20an, Zubietan, dantzarako zita jarri digute. Dantza ikasi ahal izateko (ni bezalako baldarrek denbora beharko dugu) bideoa zabaltzen hasia da e-mail bitartez, *al lorito!!!* Portzieto, non lortzen dira mugikorren zenbakiak gonbidapena bidaltzeko???

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Editoriala

Euskarazko hedabideak, beste jauzi baterako ordua

Euskarazko hedabideen historia jarraitu duenak, badaki azken 30 urteetako abaroan egin dela biderik emankorrena. Eta badaki denbora horretan emandako aurrerapausoa itzela dela. Gaur egun 400.000tik gora biztanlek kontsumitzen ditu euskarazko hedabideak, 2008ko Eusko Jaurlaritzaren ikerketa baten arabera.

Komunikazioa da gure ardatza, inguratzeko mundua nola ikusten dugun kontatzea, ikusmolde eta euskarri anitzez. Elkarren lehian eta elkarren osagari. Hori da lokaletik globalera egiten dugun ekarpen nagusia, hizkuntza, euskaraz egiten duguna. Harro gaude egindako bide horrekin, eta gure euskaltasunetik munduaren ikuskera ugari eskaintzen ditugu.

Baina ez da nahiko, ibilbide horretan sakondu behar dugu, orain artekoa hobetuz eta zabalduz. Edozelako gizarte eta kultura modernoren geroan giltzarri da hedabideen zeregina. Printzipio eta hel-

buruetan letra larriz aitortzen da garrantzi hori, baina sostengu ekonomikoan ez, ez behintzat hedabide ez publikoei dagokienez. Ezagun da EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herrian oso egoera desberdinak bizi direla: Nafarroan eta Iparraldean erakundearen sostengua hutsala da; EAEn oso bestelakoa da, baina ez nahikoa, aurrean ditugun erronkei begira eusteko adina ez bederen.

Hedabide ugari ari dira ixten munduan, gurean aldean handi eta indartsuak izandakoak. Eta guk ere enbataren erdian dihardugu. Publizitatea behera, salmentak ere bai, diru-laguntzak urritzeko joeran... Noiz arte eutsi ahal izango diogu?

Bankuen, autoen, altzari eta elektretresnen salbamendu garaian, guk ere sostengu sendoagoa aldarrikatzen dugu. Maiz aurpegiatu zaigu diru publikotik bizi garea, bai euskal kultura, bai euskarazko hedabideak, konplexua sortzeraino ere bai agian. Orain, oster, inoiz baino argiago ikusten da nola giltzarritzat

jotzen diren esparru eta proiektuetan, erakunde publikoek dirutzak bideratzen dituzten, izan hauek eremu publiko edo pribatukoak.

Eta ekonomikoki ere sektore garrantzitsua da euskarazko hedabide ez publikoena: 600 langiletik gora ari gara bertan, hilero soldata etxera eramanez eta euskal gizartearen aberastasunean gure alea jarritz.

Azken 30 urteetan ibilbide oparoa egin dugu, baina bada ordua beste jauzi bat emateko. Gure konpromisoa hemen dago, egunerokoan ikusgai. Oraingoan, herri erakunde publikoen sostengu ekonomiko handiagoa aldarrikatzera gatoz, errepide, trenbide edo eraikuntza handien zati txiki batek gure etorkizuna berma dezakeelako. Euskarazko komunikazioak merezi du tamainako apustua eta euskal kulturak ere bai.

NOAUA! aldizkaria
eta euskarazko 60tik gora hedabide

Protestaldiak burutzen ari dira Ingemarreko langileak, euren lan egoera salatzeke

Enpresa batean joan etorriak ohikoak direnean, Ingemarren egunotan irudibera errepikatu da; langileak atarian bilduta. Protestaldiak burutu dituzte, euren lan egoera salatzeke. Langileen batzordeak enpresa deskapitalizatzea egotzen dio enpresako zuzendaritza taldeari. Lana Galiziako plantara desbideratzen ari dela diote, Usurbilgoan murrizten joan eta ondorioz, langileak kalera-tzen joateko.

Egun bizi duten lan egoera aintzatzat hartuta, Ingemarreko langileek protesta ekintzekin aurrera jarraituko dutela argi dute. Langileen batzordeak kaleratu duen prentsa oharrean aipatzen dutenez, “lanpostu guztiengatik eta bakoitzarengatik borrokatuko gara”. Enpresako zuzendaritza taldeari ere eskaera zuzena luzatzen diote: “Usurbilgo lantokiari egiten dion boikota bertan behera utz dezala eta lantoki honi dagozkion eskaerak eta ekoizpenak bete ditzala”.

Enpresa deskapitalizatzea egotzen baitiote langileek enpresako zuzendaritza taldeari, “ahal den kosturik txikienean langile kopuru handiaz libratzeko”. Salaketa bera bideratu dute, Eusko Jaurlaritzako Lan Sailera eta baita Lan Ikuskaritzara ere. Esku artean dituzten datu guztiak erakundeoi helarazi dizkiete langileek, “enpresa ez dezaten deskapitalizatu eta enpresak kontratuak desegiteko izan lezakeen edozein asmoekiko aurkako jarrera izan dezaten eta ez daitezten faltsututako errealitatea agiri batean kontatzera mugatu”.

Lana, Galiziara desbideratzen

Ingemarreko 167 langileetatik 128 Enplegua Erregulatzeko Espedientearen (ERE) eraginpean daude. Baina langileen batzordetik salatzen dutenez, haietako asko kalera-tzeko arriskuan egon daitezke. Euren



LANGILEAK PROTESTAN ETA ERTZAINTEA LANTEGI ATARIAN. DUELA EGUN BATZUETAKO IRUDIA.

esanetan, langileak lanik gabe uztea da enpresako zuzendaritzaren helburua. “Usurbilgo lantegian finantza egoera okerra sortzea eta horrela, justifikatu ahal izana, hemendik denbora batera, lan taldea osatzen duten langile askoren kaleratze edo irazpena”, prentsa oharrean salatzen dutenez.

LANGILEEN KEZKA

“Enpresa deskapitalizatzea egotzen diote langileek enpresako zuzendaritza taldeari”

Enpresa zuzendaritza taldea asmo horrekin dabilela baieztatzeko argudio desberdinak dituztela diote langileek. Hain zuzen, lan asko Galiziako plantara desbideratzen ari direla salatzen dute. Eta ondorioz, euren lana egiteko langile gehiago azpikontratatu dituztela Ingemarga enpresan. “Aldi Baterako Lan Enpresen bidez, 30 bat langile kontratatu dituzte. Informazio hau Enpresa Batzordeak egiaztatu du eta Ingemargako langileen ordezkariak berretsi dute”, prentsa oharrak dioenez. Lantegia jasaten ari den bezero galera ere ez dute ulertzen.

50 langile gutxiago ditu Ingemarrek

Jada, 50 langile gutxiago ditu Ingemarrek. 2009ko abuztuan, 20 langile kaleratu zituzten, edota euren kabuz hartutako erabakiarekin enpresa utzi zuten. Iaz, 2010eko lehen hiruhilekoan, aurre jubilazio eta bajen bidez beste 30 langilaren murrizketa jasan zuen lan taldeak. Aipatu moduan, guztira 50 langile kanporatu dituztela salatu nahi dute langileek, gogorarazten dutenez, “enpresak, 7 langile soberan zeudela esaten zuenean”.



2009TIK HONA, 50 LANGILE GUTXIAGO ARI DIRA INGEMARREN.

“Elkartuta, bide bat urratu dezakegu”

Gernikako Ituna gizarteratzeko Gernika Usurbil taldea osatu da herrian

Iazko irailaren 25ean, Gernikako Akordioaren berri eman zen. Alderdi politiko, sindikatu eta gizar-te eragile ezberdinek adostutako ituna. Usurbilen, ekimen honen berri emateko talde bat jarri da martxan, Gernika Usurbil izenekoa. Urtarrilaren 2an, sentsibilitate ezberdineko hainbat lagun elkartu zituzten argazki baten inguruan. Hasiera baino ez zen izan. Ekimen gehiago bideratuko baitituzte datozen asteetan.

NOAUA! Gernikako Akordioaren berri emateko, ekitaldi jendetsua antolatu zenuten urtarrilaren 2an. Lanketa handia egon al zen ekitaldi horren atzean?

Olatz Altuna. Lana bai, lana egin zen. Aurrez, ezaguna zen iazko irailaren 25ean sinatutako ituna, Gernikako Akordioa. Itun horrek hasieratik horrelako ilusioa sortu zuen. Jendeak gogotsu hartu zuen. Eta Usurbilen eragile eta norbanakoengana jo genuenean, ilusio hori nabaria zen. Urtarrilaren 2an Usurbilen egindako argazki horretan, Gernikako Akordioaren aniztasun hori islatu nahi zen. Hori lortu zen eta aurrera begirako ekimenetan ere, ideia hori dugu buruan, sentsibilitate ezberdineko jendea biltzea. Ez da askotan gertatzen; eragile, talde edota norbanako ezberdinak elkartzea. Gure ustez hori da bidea. Normalizazio politikoan, aletxoak jarri nahi dugun guztiontzat irekia dago hau. Horretan lan egin nahi duen ororentzat.

Joxe Mari Izeta. Gernikako Akordioa sinatu duten talde ezberdinek konpromisoa hartu dute, itun horretan jasotzen dena herriz herri zabaldu eta gizartea eta gizarte eragileak protagonista bihurtzeko. Olatzek aipatu duen bezala, gure herri honetan oso garrantzitsua da sentsibilitate ezberdinak elkartzea. Bizi dugun testuinguru honetan, aro berri baten hasieran gaudela dirudi. Eta Gernikako Akordioaren ildotik, oinarri bat jarri daiteke hor.

N. Badira beste sentsibilitate batzuk herrian. Geroztik, ekimen honetara beste ahots batzuk batzeko lanik egin al da?

Agurtzane Solaberrieta. Hasieratik



OLATZ ALTUNA ETA JOXE MARI IZETA, GERNIKA USURBIL TALDEKO KIDEAK.

helburua ez zen sigletara jotzea, herritarrarengana baizik.

Dударik gabe, harremanak egin nahi ditugu herriko taldeekin eta, tartean, alderdi politikoeekin. Usurbilen ordezkaritza politikoa duten alderdiengana jotzeko asmoa dugu. Eta baita ELA sin-

dikatuarengana ere. Urtarrilaren 2ko ekitaldirako ELAko delegatu batzuekin harremanak egin ziren. Eta bide horretan jarraituko dugu aurrerantzean.

O. A. Badira hainbat ideia. Baina argazkian atera ez zirengana joateko asmoa ere badago.

ETAren su-etena, “balio handikoa”

N. ETAk urtarrilaren 10ean emandako su-etena indar handiagoga emangozion Gernikako Itunari berari, ezta?

O. A. Balio handia du, dudarik gabe. Gernikako Akordioan esplizituki aipatzen da normalizazio politikoaren bidean baldintza egokiak lortu behar direla. Zehazki ETAr, “jarduera armatua behin betiko uzteko borondatea” eskatzen zaio, nazioarteko komunitateak egiaztatzeko moduko su-etena. Hori garrantzitsua da oso. Eta Espainiako Gobernuari eskubide politiko eta zibil guztien aitortza eta Alderdien Legea bertan behera uzteko eskatzen zaio, presoen aurkako espetxe politika baztertzeko eta amnistia gauza dadin bidea hasteko.

J. M. I. ETAk emandako pauso horren harira, akaso alderdi inportanteena litzateke gizarte honetan berriro ilusioa piztea. Hainbat eta hainbat, politika inguruarekin deskonektatuta egon da. Hori guztia berriz martxan

jartzea eta herri honek eta gizarte honek bere gain hartu behar duen prozesu bat ilusionantea bihurtzea, nik uste dut alderdi inportanteenetako bat izan daitekeela. Horren harira, gizarte bezala, eskatu beharko dugu pausoak eman daitezen. Eskubide zibil eta politikoak errespetatuak izan daitezen, presoen eskubideak errespetatuak izan daitezen eta abar luze bat. Zentzu horretan, alderdi politikoen inguruko legea bertan behera uztea, ariketa demokratiko txiki bat eskatzea baino ez da. Legeak eta giza eskubideak errespetatzea. Horren inguruan, herri honek sinesten hasi behar du aro berri honetan, zerbait egin dezakegula elkarrekin. Bestela, badirudi badagoela etsipenaren diskurtso bat. Ezer gutxi lortu daitekeenaren giro bat. Horren inguruan Gernikako Akordioarekin zabaldu nahi dena da hori, elkartuta bide bat urratu dezakegula.

“Herriko taldeengana jotzeko asmoa dugu, akordioarekiko atxikimendua emateko eskatuz”

NOAUA! Itunak berak zer nolako harrera izan du euskal preso politikoen kolektiboaren artean? Horren berririk ba al duzue?

O. A. Euskal preso politikoen kolektiboaren idatzia atera da egun hauetan, esanez begi onez ikusten dutela ituna eta beraien bozeramaleek harremanetan jarri nahi dutela Akordioaren eragileekin. Garrantzitsutzat jotzen dute beraien izaera politikoa aitortzen dela itun horretan.

JOXE MARI IZETA

“Edozein gatazkan, beste batzuen ikuspegia oso garrantzitsua izan da”

N. Itunak beste puntu garrantzitsu batzuk ere baditu, nazioarteko ikuskaritza ere aipatzen da. Hori berritzailea dela esan daiteke, ezta?

J. M. I. Edozein gatazkan, beste batzuen perspektiba, beste batzuen ikuspegia oso garrantzitsua izan da. Batek zuzenean bizi duen gatazkan, maiz oso harrapatuta dago emozionalki, historia-gatik... eta abar. Kanpotik beste begiratu bat jasotzea inportantea da.

A. S. Euskal Herrian bizi dugun gatazka politikoa eta armatua da oraindik Europan konpontzeko dagoen gatazka. Nazioarteko begiraleek egin dezaketen lanarekin, Europako agendaren zereginen artean euskal gatazka politikoa konponbidea kokatzen lagundu dezakete. Irlandako prozesuan izan duten partehartze hori, Euskal Herrian bermatzea. Uste dut inportantea dela hori.



URTARRILAREN 2AN USURBILGO FRONTOIAN EGINDAKO EKITALDI HONEKIN ABIATU ZEN GERNIKA USURBIL TALDEAREN DINAMIKA.

Blog bat jarri dute martxan eta hainbat ekitaldi bideratzen hasi dira

NOAUA! Orain herriz herriko aurkezpenen garaia da. Funtzio hori egitera dator herrian osatu berri den taldea, Gernika Usurbil izeneko.

O. A. Epe motzean, harremanen dinamikarekin jarraituko dugu. Herriko taldeengana jotzeko asmoa dago, akordioarekiko atxikimendua emateko eskatuz. Eta otsailaren 13an, hain zuzen, zinegotziak diren eta zinegotziak izan diren guztiak bildu nahi ditugu.

J. M. I. Zentzu horretan, 83 pertsoneri luzatu zaie gutuna.

A. S. Usurbilgo Udaletxean ordezkaritza politikoa izan duten guztiei bidali diegu. Ezker abertzaletik PP alderdiraino.

O. A. Blog bat sortu da http://www.blogak.com/gernika_usurbil/ eta, martxoaren hasieran edo, hitzaldi ziklo bat antolatu nahi da.

Lau hitzaldi aurreikusita daude eta hori bideratzen ari gara egun hauetan. Xabier Arzalluz, Carlos Garaikoetxea, Patxi Zabaleta eta Antxon Etxebeste ekarri nahi ditugu eta horretan ari gara.


ARRANDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea,7
TIF 36 21 64
USURBIL

Josue
Igeltseritza:
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

JOSETXO IKATZETA

Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

TXAPELDUN
TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna lurra 2, 943 11 82 53

“Udarregi Ikastolaren eredua, Ikastola Eredua da”

Ailegatu da unea. Ikasle berriek matrikulatzeko epea zabaldu dute Udarregi ikastolan. Mariaje Imaz zuzendariak dakartzu aurtengo kanpainaren xehetasunak. Aurrera begira jarrita, ikastolak dituen erronkak ere ahotan hartzen ditu lerroetan; hala nola, leku falta konpontzeko martxan den eraikin berriaren egitasmoa. Elkarrizketa osorik irakurtzeko, www.noaua.com web orrialdean.

NOAUA! Zeintzuk dira Udarregi ikastolako hezkuntza proiektuaren ezaugarri nagusiak?

Mariaje Imaz. Udarregi ikastolako Hezkuntza Proiektuan gure izaera azaltzerakoan aipatzen eta definitzen dugun lehenengo ezaugarria hizkuntza eta kulturari dagokiona da. Bertan bi aspektu nagusi azpimarratzen dugu: batetik, euskara eta euskal kulturaren transmisioan ikastolak hartzen duen konpromisoa eta bestetik, beste lurraldeetako kultura eta hizkuntzei ematen dieguz garrantzia eta haiekiko gure jarrera. Testuinguru honetan kokatuta ulertu behar da Udarregi hezkuntza eredu eleanitzaren ezarpenari ematen dion garrantzia eta horren alde, ikastolaren hasieratik, egin den apustua. Apustu honetan ez gaude bakarrik, ezen ikastolon mugimenduan, aspaldidanik ari baikara eleanitzasunaren bidea jorratzen eta horregatik ere, beren seme-alabak matrikulatzeko garaian ikastola aukeratzeko duten familiek berehala ikusiko dute beraien haurrak ingelesaren irakaskuntza goiztiarrean lehenengo pausuk ematen, HHko 4 urterekin, hain zuzen ere, eta DBHko 4. mailara iritsi bitartean entzun ahal izango diete, hitz solte eta bakan batzuetara baino haratago doazenak, hizkuntza horretan esaten. Era berean, LH3. mailatik aurrera gaztelaniaren irakaskuntza formalaren hasiera izango dute, eta DBHn, hautazko gaien artean frantsesa ikasteko aukera ere edukiko dute. Agian norbait izutu egingo da pentsatuz beren seme-alabak hizkuntzen anabasa honetan zoratu beharrean egongo direla, baina lerro hauek aprobetxatu nahi dituzte, mezu baikorra agertzeko, izan ere, Eleanitzasunaren hautuan gure aurretik doazen beste ikastoletako emaitzek era-

kusten diguten moduan, apustu zuzena baita Udarregi egin duena. Alabaina eleanitzasunaren kontzeptua ulertzeko garaian, ez dugu ahanzi behar, ardatza euskara dela eta euskaratik gainerako hizkuntzen jabekuntzarainoko bidearen muina euskara bera izango dela, beraz “globalean pentsatu, toki mailan jardun” izango litzateke laburpen egokia egitasmo honetarako.

N. Gurasoek zergatik matrikulatu behar dituzte euren seme-alabak Udarregi ikastolan?

M. I. Urtarrilaren 31tik otsailaren 11ra izango da aurtengo Matrikulazio Kanpaina 3 urtetik 16 urte bitartean aurkitzen diren ikasle berrientzat. Beti egin ohi dugun moduan ikasle eta beren familien datuak jasotzeaz gain, Ikastolaren funtsezko ezaugarrien berri emango diegu eta gaur egun indarrean ditugun hezkuntza proiektuei buruzko informazio zabala ere bai.

MARIAJE IMAZ, ZUZENDARIA

“Herrian ikastetxe bakarra izatea akuilua da guretzat”

Udarregi Ikastolaren eredua, Ikastola Eredua da, eta Euskal Herriko beste ikastolekin partekatzen ditugun helburuak eta egiteko era partekatu nahi dituguz geurea aukeratzeko duten familiek.

Hezkuntza ikuspegitik, Udarregiren ahaleginik handiena, eskaintza zabala bezain interesgarria egitean datza, eta norbaitek pentsa zezakeenaren kontra, herrian ikastetxe bakarra izatea, guretzat akuilua da, geroz eta hezkuntza hobea eta kalitate handiagokoa emateko bidean.

Bide honetan berriz, Usurbilgo familiek Udarregi aukeratzeko gogo eta ilusioa edukitzea da gure nahia, eta herritarren konfiantza hori lortzea, Ikastolaren hasieratik dugun erronkarik garrantzitsuenak. Beraz, hemendik animatu nahi dituzte beren seme-alabentzat eskola bila dabilzanean Udarregi aukera dezaten, egiten ari garen hezkuntza bidea elkarrekin egin ahal izan dezagun.



OTSAILAREN 11N AMAITUKO DA MATRIKULAZIOA EGITEKO EPEA.

N. Berrikuntzarik ekarriko al du datorren ikasturteak?

M. I. Berrikuntzaren ildoak etengabe zaintzen dugun ildoak da eta datorren ikasturteari begira kontuan hartuko dugu bera ere gure egitasmoetan.

Dena den, berrikuntza ez da izango beste egitasmo bati heldzea, baizik eta indarrean ditugun lehentasuneko gaiei behar duten jarraipena ematea.

Ikastola, “denona eta denontzat”

NOAUA! Orain, 0-16 urte arteko zikloak eskaintzen dira Udarregin. Aldaketok zer nolako harrera izan dute?

Mariaje Imaz. Bide luzeko erronkari heldu genion 2008an eta hasiera bereetik argi izan dugu bidean gorabeherak izan zitezkeenik. Hala ere ilusioz begiratzen diogu erronkari eta mendizaleak bezala, aldapan gora eta behera aritzeko jaikitzen gara goizero. Pertsonalki egiten dudana balorazioa baikorra da; egitasmoari egindako harrera, orokorrean ona izan dela sentitzen dut; hala ere badira, berritu, hobetu eta osatu beharreko alderdiak eta horretan ari gara.

Hau lortzea aldira, ez da beti erraza izaten, baina konbentziturata nago, Usurbilgo familiek egingo duten ekarpenaren indarrak eta onuraz eskaintza duin eta berritzailea egiteko izango dugun gaitasunaz.

Era berean, gustatuko litzaidake azpimarratzea, aurrera egiteko zeinen garrantzitsua den, Hezkuntza, kolektibitatearen eginkizuna den neurrian, herritarren ekarpena egitea, honela bakarrik lortuko baita, ikastola denontzat eta denona izatea.

Eraikin berriaren aurre-proiektua egina dago

NOAUA! Eraikin berriarena, Hezkuntza Mahaian jorratuko duzuen gaietako bat izango da. Zer moduz dabil Hezkuntza Mahaia?

Mariaje Imaz. Ikastolak hezkuntza alorretik bere ekarpena egin nahi dio Usurbili, edozein etxetako ateen atzean dauden hezkuntza behar anitz eta desberdinak asetzen laguntzera iritsi ahal izateko eta honetarako beti oso begi onez ikusi du Ikastolak Hezkuntza Mahaiaaren existentzia eta zeregina.

Martxan hasi zenean, orduko Haur Eskolaren etorkizunaren gaia lantzeko aukera izan genuen bertan, eta gero, berriro biltzen jarraitzeko tartea luze samarra izan zen arren, 2010eko maiatzean atzera ekin genion biltzeari. Herriko hezkuntza zentro ezberdinek eta alderdi politikoetako ordezkariak nahiz gaian interesa duen edozein



ERAIKIN BERRI BATEN BEHARRA DU UDARREGI IKASTOLAK.

herritarrek parte hartzeko dugun aukera oso positiboa iruditzen zaigu eta gure jarrera honelako ekimenen aldekoa da dudarik gabe!

Azken bileran izandako gaia: Udalak Mahaiari Udaregiko eraikin berriaz udal-arkitektoak egindako aurre-proiektua azaltzeko izan zen.

Guztion parte hartzea

Ikastolaren ikuspegitik, Mahaiaren alderdirik interesgarriena da, hezkuntza arloan jarduten dugun guztion parte hartzeko aukera. Aukera baliatzen jakitean eta eraginkorki etekina ateratzean datza, herriari egin diezaiokegun ekarpenik handiena.

“Kilometroak jaiaren eskaera burutu dugu”

NOAUA! Herria handitzen ari da. Espazio falta eta ikastolaren aldarrikapena. Nola irudikatzen duzu etorkizuna? Udala eta instituzioekin ari al zarete gai hau lantzen?

Mariaje Imaz. Ez da berria ez, aldarrikapen hau, eta momentu honetan buruhausterik handiena sortzen diguna bada ere bai! Kontuan hartu behar da, jada, HHn ikasmila bakoitzeko 3 talde ditugula eta Lehen Hezkuntzako lehenengo bi mailetara aurten ere, 3 ikastalde pasa direla. Hazkunde honek behetik gora dator eta derrigorrezkoa izan zaigu hasierako Espazio Fisikoen Beharren Txosten hari, urtez urteko beharren proiektzioa doitzea eta obra proposamenak eranstea.

Honetarako Ikastolen Elkarteko aholkularitza izan dugu hasiera-hasieratik. Era berean, herriak hezkuntzan dituen beharrei erantzun nahi baldin badiegu ikusten dugu eraikin berri baten beharra dugula.

Bestalde, 0-16 eskaintza aurrera ateratzeko eta bereziki 0-6 hezkuntza tramua gaur egungo korrante pedagogikoak markatzen dituen ildoetatik garatu nahi baldin badugu, adin hauetako haurrak eraikin bakar batean biltzea onuragarria eta beharrezkoa da.

Honekin batera, esan nahi dugu, inoiz ez dugula zalantzarik egin, lehen aipatutako Hezkuntza Eskaintza Integrala erdiesteko xedea portu onera eraman nahi baldin badugula, eta jakitun izanik, herrian bestelako hezkuntza eskaintzarik ez dagoela, Udalera eta Hezkuntza Sailera joan beharra daukagula eskaera zehatzarekin.

Hala, aurreko ikasturtean, Usurbilgo alderdi politiko guztiei gutuna helarazi genien elkarrizketak eskatuz; eta halaxe egin genituen horretarako prest agertu zirenekin.

Ikastola, 2010eko maiatzean harremanetan jarri zen Hezkuntza Sailarekin finantzatzeko gaiaz galdeginez. Erantzunik ez du jaso.

Bestalde, berriki jarri da harremanetan Udala, baina erantzun argirik gabe gaude oraindik.

Ikastolak Udalarekin duen harremana eraikinaren gaia jorratzeko, prozesuaren hasieratik dator eta segida ematen ari gatzazkio aurten ere bai. Alkatearekin eta gobernu taldeko beste hainbat kidearekin egindako elkarrizketetan, lur eremuaren lagapena eta balizko finantzatzeko bideak izan ditugu langai.

Eraikinaren altxatzeari dagokionean, udalbatzak, abendu amaierako osoko

ohiko bilkuran gehiengo osoz onartu zuen Ageri alde eremuaren azalera handitzeko aldageta puntuala behin behinagoz onartzea.

Gai honi lotutako espediente, beraz, EAeko Lurraldearen Antolamendurako Batzordera igorri du Udalak, Planeamenduko Arau Subsidiarioen Elementuen Aldaketari dagokion txostena egin dezan.

Instituzioekin izaten ari garen harremanaz gain, ikastola barruan, guraso talde bat izendatuta dago gai honen kudeaketan laguntzeko.

Bide honekin batera eta kontzientzia izanik era honetako proiektuen finantzatzekoak duen tamainaz, Kilometroak Jaiaren eskaera burutu dugu urtarrilaren 28an, Ikastolen Elkartean Eskaera Txostena aurkeztuz.

Finantzatzeko bide honetaz, hain premiazko dugun eraikin berria altxatzen lor dezagun, bakoitzak bere lekutik eta denon arteko ekarpena beharrezkoa dugula!

Herriak sortutako ikastola, herriaren laguntzaz berreraiki eta herriari atezabalik itzul diezaion hezkuntza eskaintza emankorra, bai orain eta baita etorkizunean ere, guztiak beharrezkoak ditugu.

Ika, ika, ika... hemen dator Korrika!

Otsailaren 11n Korrika Batzordea bilduko da lehen aldiz Etumetan

Korrika badator! Aurten, beste behin ere, Korrika lasterketaz gozatzeko aukera izango dugu. Apirilaren 7an abiatuko da Trebiñutik Korrikaren 17. edizioa, eta apirilaren 17an iritsiko da Donostiara. Usurbilen, lan talde bat osatu nahi da eta datorren astean bilera ireki bat egingo da Etumeta euskaltegian. Otsailaren 11n 19:00etan.

Dagoeneko, lagun asko ari dira Korrikaren xehetasun denak lotzen. Baina herriz herri ere, euskararen aldeko lasterketa honek laguntzaile premia handia du.

Korrikan parte hartzeko moduak askotarikoak dira. Baina Etumeta euskaltegitik, Korrika Batzordean parte hartzerantz animatu nahi ditu herritarrik. Batzorde horren lehen bilera otsailaren 11n izango da, osteguna, arratsaldeko 19:00etan Etumeta euskaltegian.

BILERA, OTSAILAREN 11N

“Korrika 17az eta herrian egingo diren ekitaldietaz hitz egingo da Korrika Batzordearen lehen bileran”

“Bertan Korrika 17ren nondik norakoak eta gure herrian egingo direnak ezagutzeko aukera izango duzu eta, nahi izanez gero, herrirako besterik proposatzeko ere bai”, adierazi digute prentsa-ohar bidez herriko euskaltegiko arduradunek.

Denon laguntza premian

Korrikaren helburuak bete daitezen “guztion ekarpena eta ahalegina beharrezkoak dira, denon parte hartzearekin lortuko dugularik Euskal Herria euskalduna izatea. Ahalegin horretan zure laguntza estimagarria izango dugulakoan, zure zain geratzen gara”. Horra beraz, Korrika Batzordean parte hartzeko gonbitea.



KORRIKA LAGUNTZAILE KANPAINA AURKEZTU ZUTEN DUELA GUTXI.

Korrika Laguntzaile kanpaina, martxan

Korrikak, 1980an sortu zenean, euskararen aldeko sekula egin zen manifestaldirik erraldoiena egiteaz gain, AEKrentzat diru kopuru handia ahalik eta epe laburrenean lortzea zuen xede, orduko AEKren egoera ekonomikoa AEKren beraren jardun arrunta ere kolokan jartzearainokoa baitzen. Horrela burutu zen lehenengo Korrika, “itzeleko arrakastaz burutu ere”, Edurne Brouard Korrikako arduradunak azaldu izan duenez.

Lehen Korrika hartatik 30 urte baino gehiago pasa diren arren, AEK-k, oraindik ere, herritarren laguntza behar du bere proiektua aurrera atera ahal izateko, Euskal Erkidego Autonomoan diru laguntza politika hobetu bada ere Nafarroan eta Iparraldean jasotzen diren diru laguntzek ez dutelako jardun arruntaren, hau da, eskolen, ehuneko txiki bat baino estaltzen. Eta gainera, EAEn ere diru lagun-



“EUSKALAKARI”, AURTENGO EDIZIOAREN LEMA DU PIN-AK.

tzen politikan aurrera pausoak baino atzera pausoak ez ote diren emango zalantza dauka AEK-k. Edurne Brouardek aipatu duenez, “dekretuaren ingurukoek, izandako elkarrizketa urriek eta erantzun eznahikoek zer pentsatua ematen digutelako”.

Pin-a, dagoeneko salgai

Korrika Laguntzaile pin-a eskuratuz, gure ekarpena egingo diogu aurtengo edizioari.

Arantxa Arrospide, Arratzain: “Etorri, probatu eta gero balora dezatela gure sagardo ekologikoa”

Urtarrilaren 21az geroztik, zabalik dago txotx denboraldia taberna, jatetxea, sagardotegia eta nekazaritza-turismoa biltzen dituen gunean, Arratzainen. Altzairu herdoilgaitzeko hiru kupel estreinatzearekin batera, denboraldiko nobedade nagusia, ziurtagiridun sagardo ekologikoa dastatzeko aukera izango dute bezeroek, lehen aldiz.

NOAUA! Hasiera honi begira, zer bezero aurreikuspen duzue?

Arantxa Arrospide. Pixka bat beldurtuta gaude, krisiaren eraginez. Baina iaz ere berdin geunden eta oso gustura bukatu genuen. Sagardo denboraldian bezero finkoak ditugu, katalanak, madrildarrak. Horiek logelak hartzen dizkigute nekazaritza-turismoa dugulako.

ARRATZAIN SAGARDOTEGIA

“Sagardo ekologikoak ez du pestizidarik, natura zainduz egin da”

N. Zenbateko sagardo ekoizpena prestatu duzue?

A. A. 30.000 litro inguru ekologiko eta naturala. Aurten lehen aldiz, sagardo ekologiko ziurtatua egin dugu. Ekologikoa naturala baino askoz gehiago.

N. Sagardo ekologikoaren ezaugarriak zeintzuk dira?

A. A. Sagardo ekologikoa egiten dugun lehen aldia da. Gure sagardo ekologikoaren eta konbentzionalaren artean, argi eta garbi dago desberdintasuna zein den, zaporea. Sagardo ekologikoak sagar zapore izugarria du. Aurten hemengo sagarrarekin egin dugu gehienbat. Kanpokoa ere badu, ez da ordea hainbeste nabarmentzen. Aipatzekoa bestalde, kolorea. Gorri antzekoa dugu ekologikoa, baina gure ustez kolorea da gutxienekoa. Garrantzitsuena zaporea da, edaten



SAGARDO DENBORALDIAN MADRIL ETA KATALUNIAK JENDE ASKO HURBILTZEN DA ARRATZAIN SAGARDOTEGIRA.

duzuna sagardoa izatea. Ez dugu igo prezioa ekologikoa delako.

N. Ekologikoaren ziurtagiria lortzeko zer prozesu burutu duzue?

A. A. Lehenik, kontsulta egin genuen Kontseiluarekin, izenaren alta eman genuen. Ezin gara sagarra prentsatzan hasi, ikuskapena egin arte. Zukua egin ostean, ikuskaria berriz etorri, konprobatu eta orduan jada, kupeletan jartzen du. Hartzitu ondoren, ikuskaria etortzen da eta orduan prezintua dugu. Orain botilatu nahi izanez gero, prezintua puskatu behar du ikuskariak. Botila bakoitzak ere etiketan zenbakia darama. Kontrola izugarria da.

N. Natural edo ekologikoa. Zer desberdintasun daude bien artean?

A. A. Naturalak ez du esan nahi guztiz naturala denik. Produktu sintetikoak izan ditzake, kimika. Kontrolak baditu, baina ez dago konparatzerik ekologikoak duen kontrolarekin. Naturalak ez du esan nahi guztiz osasuntsua denik. Askoz osasuntsuagoa da ekologikoa, naturala baino.

N. Jakiekin ere bide ekologikoa jorratzeko asmoa duzue?

A. A. Intxaur ekologikoak izan ditugu. Esperientzia modura egin zen, bezeroek ez zekiten intxaurrak ekologikoak zirenik, guk bakarrik genekien, baina oso

gustukoak izan dituzte. Bezeroak bereizten ditu jaki ekologikoak. Bezeroak asko daki eta jaki ona dena ederresten du. Egia esan, arazo bezala, arraina dugu. Ba al da bakailao ekologikorik? Irtenbidea erraza du, menua aldatzea. Baina hori ere ez zaigu iruditzen oso egokia denik, sagardotegiak bere tradizioa baitauka.

Erretzaileentzat terraza txiki moduko bat daukate

N. Bezeroek zergatik etorri behar dute Arratzainera?

A. A. Polita da herritarrak ere sagardotegira joatea. Normala da etortzea. Baina bereziki aurten esango nuke, ekologia edota ingurunea zaindu eta natura errespetatzea gustuko duenak, etorri, probatu eta gero balora dezatela gure sagardo ekologikoa.

N. Bezeroen artean, erretzaileak izango dira. Aldaketak egin dituzue?

A. A. Kanpora joaten oso erraza dugu, ate asko daude. Mendinga gaude. Gainera, erretzaileek terraza txiki moduko bat izango dute.

Arratzain, urte osoan irekia

Informazioa: 943 366 663

agroturismoarratzain.com

Zenbat lagunentzat tokia: 100 lagun .

Zerbitzuak: sagardotegia, taberna eta nekazaritza-turismoa.

Kupelak: 8.

Santa ageda bezpera degu...

Ostiral honetan kantuan arituko dira Udarregin, Zubietan eta kaxkoan

Euskal Herriko hainbat txokotan aspaldi errotutako ohitura da. Antza, lur azpiko izpirituak berpizteko eta, aldi berean, lurra esnatzen hasteko ospatzen da jai hau makilarekin. Aurten, Euskal Kantu Taldea eta Bertso Eskola elkarrekin aterako dira kantuan. Zubietan ere, entseatzen izan dira azken asteotan eta kantari aterako dira arratsalde partean. Udarregiko ikasleek ere berrituko dute aspalditik datorren ohitura hau.

Zubietan, 18:30ean Kaxkapen
Zubietako hainbat lagun Kaxkapen izan dira entseatzen azken asteotan. Ostiral honetan ordea, Santa Ageda bezperako kantuak abestera aterako dira kalera, 18:30ean Kaxkapetik.

Kaxkoan, 19:30ean
Bota Punttuba Bertso Eskolakoak 19:30ean elkartuko dira Mikel Laboa plazan. Aurten, Euskal Kantu Taldekoekin batera ibiliko dira kalejiran. Eta bertsolariek eta trikitilariak alaituko dute Santa Ageda eskea.



DUELA HIRU URTEKO ARGAZKIAN, ZUBIETAKO KOADRILA, SANTA AGEDAKO KOPLAK KANTATZEN. OSTIRAL HONETAN ERE KANTUAN ARITUKO DIRA.

Kaxkoan tabernatik tabernarako ibilbidea osatuko dute eta gero sagardotegietara joango dira. Urdairan amaitzea aurreikusten dute. Artzain jantziekin eta Santa Ageda makilarekin agertzea ezinbestekoa izango da.

Udarregikoak, goiztiarrenak
Udarregiko ikasleak 15:00etan aterako dira eta frontoian amaituko dute ibilbidea.

Bazkidetza egiteko garaia Bihurri ludotekan

Urteroko kuota ordaintzeko edota bazkidetza egiteko garaia da Bihurri haur ludotekan. Kontu korrantea zabaldu dute egun lokaleko erabiltzaile direnentzat, kide berriei begira hil honetarako hitzordu bat ere finkatu dute.

Ludotekako arduradunek berri eman dutenez, bazkide berriek euren eskabiak otsailaren 9an jaso ahal izango dituzte. Horretarako, arratsaldeko 18:30etatik 19:30etara ludotekara joatea nahikoa izango da. Lokaleko arduradunak bertan izango dira.

10 euro urtean

Ohar bidez jakinarazi dutenez bestalde, jada bazkide direnek urteko kuota



LUDOTEKA UTZIKO DUTENEK GILTZA ITZULI BEHAR DUTE.

ordaintzeko kontu korrante zerbakia zabaldu dute Kutxan. 10 euro zerbaki honetara bideratu beharko dira: 21010069 15 0012641833.

Jada ludoteka erabiltzeko asmorik ez dutenei azkenik, arduradunek giltza itzultzea eskatzen diete, bazkide berrien artean banatu ahal izateko.

Inauterietarako gaiak proposatzeko epea zabalik

Zertaz mozorrotu nahi zenuke Zdatozen Inauteriotan? Gaia zerorrek aukera dezakezu. Otsailaren 8ra bitarte aukera duzu. E-mailez igorri zure proposamenak honako helbidera: elkartea@noaua.com

Martxoaren 5ean ospatuko da aurten.

Santuenea KEren Asanblada Orokorra

Santuenea kultur Elkaratek asanblada orokorra egingo du otsailaren 9an asteazkena, arratsaldeko 20:00etan. Besteak beste, juntako karguak berritu nahi dira.

Aginagako igogailua inauguratuko da igandean

Duela bi hilabetetik funtzionamenduan dagoen Aginagako igogailua inauguratuko du Usurbilgo Udalak, asteburu honetan. Igandean, otsailak 6, goizeko 11:30ean ekitaldi txiki bat burutuko da, luntzarekin. Arrate Zahar Egoitzara, ludotekara edota eskolara igo nahi duten aginagareiri joan-etorria erraztuko die.

Urtarrilaren 27ko greba deialdiak jarraipen zabala izan zuen Usurbilen

Pentsioen erreformaren aurka eta langileen eskubideen aldeko greba deialdia ez zen oharkabeen pasa. ELA, LAB, STEE/EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuek deitutako grebak eragin zuzena izan zuen Usurbilgo egunero-ko martxan. Saltokien gehiengoa itxita izan zen goizean goizetik. Zentzu horretan, grebaren eragina ia erabatekoa izan zen. Industria sektorean ordea, hainbat tailer eta lantegi lanean izan ziren.

Erakunde publikoak, dendak, eta enpresa gehienak itxita egon ziren joan den ostegunean Usurbilen. Gipuzkoan ere, oihartzun handia izan zuen greba deialdiak. LABek emandako datuek dioenez, "urtarrilaren 27an %80k egin zuen greba Gipuzkoan".

Saltokiak eta tabernak, itxita

Usurbilen, saltoki txikiak eta taberna guztiak itxi egin zituzten goizeko lehen ordutik. Erakunde publikoek ere bat egin zuten grebarekin, eta udaletxe, udal liburutegi zein Oiardo kiroldegiko atea ez zituzten zabaldu. LAB sindikatuak adierazi duenez, "Usurbilgo anbulatorioan zerbitzu minimoetan aritu ziren lanean. Eta garraio publikoan ere, autobusean zein trenean, zerbitzu minimoetan aritu ziren".

Michelinen eta Urbilen, lanean

Herriko enpresa ia denek bat egin zuten grebarekin. Hala ere, tailer zein



ESKUALDEKO MANIFESTAZIOA
HERNANIN EGIN ZEN.
ARGAZKIA: KRONIKA.

enpresa batzuetan lanean aritu ziren. LABek bidalitako balorazioan, "Michelin eta Urbil izan ziren puntu beltzak, lantegi hauetan gehiengoak lan egin zuen, nahiz eta hauetan ere langile kopuru batek grebarekin bat egin".

Hernaniko manifestazioan 1.000 lagun elkartu ziren

Egunean zehar hainbat manifestazio izan ziren Euskal Herri osoan. LABek zabaldu dituen datuen arabera, Donostian 15.000 pertsona elkartu ziren eguerdian egin zen manifestazioan. Arratsaldean eskualdeko manifestazioa egin zen Hernanin, eta bertan 1.000 lagun elkartu ziren.

Astelehenetik aurrera, notariotza zerbitzua Udaletxean

Mota guztietako notaritza eta Maholkularitza zerbitzuak; kontsultak, mailegu sinatzeak... Aurrerantzean, herrian bertan egin ahal izango ditugu. Lasarte-Oriara edo Donostiara zertan joan beharrik gabe. Astean behin, bi orduz Miguel Angel Martinez notarioak herritarrek eskatutako argibideei erantzuten edo dokumentazioa euskaraz bideratzen lagunduko die.

Hasiera batean, astelehen goizetan bi orduz egongo da notarioa Usurbilgo udaletxean, 10:00etatik 12:00etara, udalbatza aretoan.

Oinordetza eta merkataritza alorrak dira notarioak egiten dituen ohiko lanak. Baina NOAUA!ri egindako adierazpenetan dioenez, "beharrezko tramite guztiak egiten ditugu: edozein salerosketa inskribatu edo erregistratzeko, maileguak, ezeztapenak, sozietateei loturiko gaiak, kapitalen handitzea, sozietateak eratzea, partizipazioen salmenta... Eskriturak dokumentatzen ditugu. Herentziari lotutako gaiak ere lantzen ditugu; partiketak, adjudikazioak, testamentuen kontzepzioa. Testamentuen gaian, ezjakintasun nahikoa dago gainera".



ASTELEHENETAN BI ORDUZ
EGONGO DA NOTARIOA
UDALETXEAN.

KALITATERIK
EUSKAL OKELA
KARNE DE VACUNO
DE CALIDAD
DEL PAIS VASCO

**ALKORTA
AUTOZERBITZUA**

Behoko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42

Frutak
Barazkiak
Etxeko produktuak
Izoztuak

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Moratoriaren aldeko dantza

Martxoaren 20an, Flash Mob erraldoia egingo da Zubietan

Dantzan jarri nahi ditu herritarrak Gipuzkoa Zero Zabor mugimenduak. Dantzan, errauste plantari ezetz esan eta moratoria eskatzeko. Guztia, martxoan Zubietan grabatuko den Flash Mob erraldoian islatu nahi dute. Atzera kontua hasi da. Hilabete eta erdi pasatxo baino ez da geratzen, letra ikasi, koreografia prestatu eta noski, eguna ailegatuta, ekimen erraldoian parte hartzeko.

Hitzordua eginga dute jada; martxoak 20, igandea, Zubietan. Gonbita gipuzkoar guztiei helarazi diete antolatzaileek. Gipuzkoa Zero Zabor (GZZ) iaz sortutako herri mugimenduak erronka berri bati heldu dio. Hilabete eta erdi barru, Flash Mob erraldoia grabatuko dute Zubietan. Ekimeneko protagonistak herritarrak izatea nahi dute. Zergatia joan den ostiralean argitu zuten antolatzaileek Antiguako Doka kafe antzokian eskaini zuten prentsaurrekoan. "Gipuzkoan inoiz egin den dantzaldi erraldoiena egingo dugulako, errauste plantaren kontrako mugimendu erraldoiak mamu pozoitsua irentsiko duelako", adierazi zuten GZZ-ko ordezkariak.

2.000 lagun dantzan

Gaineratu zuten, "proiektu erraldoiari erantzun erraldoiagoa emango diogu, 2.000 laguneko Flash Mob izugarria egingo dugulako errauste plantari moratoria eman diezaioten eskatzeko". Modu honetan, bakarrik ez daudela esan eta elkartasuna adierazi



MIKEL ERGUIN KOREOGRAFOA ETA AINHOA ARROSPIDE ZERO ZABOR TALDEKOA.

nahi zaie zubietarrei. Eta Foru Aldundiko ordezkariak aldiz, halako egitasmo batean dirua ez dezatela xahutzea eskatu eta "Markel Olanori esango diogu gure eta gure ondorengoen osasuna ezin duela hain modu arinean arriskuan jarri".

Adina ez da problema

Flash Mob ekimenean, adin tarte guztietako herritarrei parte hartzea deitzen diete. "Haur, gazte, heldu eta aitona amon guztiek dantzan egingo dugu ezetz esateko. Badaudela moduak hondakinen arazoari aurre egiteko. Irtenbide merke eta osasuntsuak badaudela esateko. Herritarrok konponbideetan parte hartu nahi dugula esateko. Denbora besterik ez dugu eskatzen, moratoria, alternatibak badaudela frogatzeko. Eta itsua ez denak begira dezala Usurbilera, Hernanira edota Oiartzunera. Eta laster batean Antzuolara". Hala adierazi zuten Flash Mob ekimenaren aurkezpenean.

Hasi dira entseguak

Flash Mob erraldoirako prestaketa lanak hasi dira. Joan den larunbaterako deitua zegoen lehen entsegu saioa Udarregi ikastolan. Baina gehiago ere izango dira. Saiok Usurbil Zero Zabor taldekoek deituko dituzte. Hurrengoak, otsailaren 13an, otsailaren 27an eta martxoaren 13an entsegu saio irekiak burutuko dira frontoian, eguerdiko 12:30ean. Dantza ikasten joan nahi duenak, koreografiaren bideoa noaua.com web orrialdean ikus dezake. www.gipuzkoazz.com



OTSAILAREN 13AN ENTSEGUA EGINGO DA FRONTOIAN.

Andoni Errazkin
Xukin
 igeltsaritza orokorra
 Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
 ☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

Patri Jatetxea

 K./nagusia 14. ☎ 943 362 725

ERRAZKIN
 Igeltsaritza S.L.
 Tel.: 649 435 470
 Faxa: 943 372 679
 K./ Nagusia 47. Behea A.
 20170 USURBIL

Kale nagusia, 10
 Telf: 943 37 33 48
 943 37 09 13
 Okandegia - Gozotegia
LABE-GOXO

Lidergotzatik puntu batera bigarren itzuliari ekiteko prest da, senior nesken eskubaloit taldea

Ezin hobeto doakie denboraldia eskubaloian, senior neskei. Duela sei urte hasitako lanaren emaitza jasotzen ari direla dio entrenatzaile Nerea Agudok. Garai hartan taldearen alde eginiko apustuak merezi izan duela dio. Asteburuan ekin diote bigarren itzuliari, pozik bigarren postuan, Jarrilleras liderrarengandik puntu batera.

NOAUA! Bigarren postuan, lidergotzatik puntu batera. Zer giro duzue?

Nerea Agudo. Giro bikaina. Lehen itzulia partida bakar bat galdu gabe bukatu dugu eta oso pozik, uneaz gozatzaren ari gara. Berritoki gudan ilusio hori berpiztea izugarria izan da. Guk ere ez dugu sinisten hemen gaudenik. Aurten ere behetik hasi gara, oso umil, lanean gogor, ia egunero hasi ginen entrenatzen. Eta lehenago, baina ondo pasa eta gozatzaren.

NEREA AGUDO

“Urteotako lanaren emaitza orain jasotzen ari dira neska hauek”

N. Duela bi urteko egoeran zaudete, orduan ere urte zaila izan eta gero berpiztu zenuten taldea?

N. A. Hala da. Iaz ere seniorren taldea osatu genuenean, oso gogorra iruditzen zitzaigun. Liga berria zen, ez genekien ezer. Duela bi urte jubenil mailan gauza bera gertatu zitzaigun. Zer egin behar



DENBORALDIA OSO ONDO HASI DU NEREA AGUDOK ZUZENTZEN DUEN TALDEAK.

genuen esaten genuen, lan gehiago. Eta hala egiten ari gara. Orain partidetara joan eta jendea harritu egiten da. Iaz ez genuen partida bakar bat ere irabazi. Jarrilleras taldearen aurka 18 puntugatik galdu genuen. Aurten begira, beraiekin borrokan gabiltza.

N. Bigarren itzulia hasi berri duzue. Zein dira eman asmo dituzuen hurrengo pausoak?

N. A. Apirila bukaerara arte. Azken partida gainera, Leitzararen aurka jokatuko dugu etxean. Lehen, Liga bukaeran pentsatzen hasten genuen denboraldia. Orain ez, ez baitugu sinisten non gauden. Orain partidaz partida goaz, neurketa bakoitzeko estrategia prestatzen.

N. Lanean jarrita, zuen taldea geldiaraziko duenik ez omen dago...

N. A. Sei urte daramatzat talde berdinarekin. Oso giro ona dugu, oso lagun onak gara. Hemen daude, entrenatzen denak egunero, ondo pasatzen.

Urteotako lanaren emaitza orain jasotzen ari dira. Lehen beldur gehiago genuen, zer gertatuko zaigu, gu ez gara hain onak hor egoteko. Orain ez dute jolasteko beldurrik, gozatu egiten dute. Orain esaten dugu, hemen baldin bagaude, zerbaitegatik izango da. Eta beraiekin badakite lan gehiago eginda, lor daitekeela. Eta ez zaie beste ezer esan behar.

“Jendea etor dadila neskak animatzera”

NOAUA! Taldearen eboluzioaren ikusita, neskak une honetan zuen lekua egiten ari zarete?

Nerea Agudo. Inoiz izan ez duen lekua izaten ari gara pixkanaka. Kostatu zaigu. Ez diogu inori laguntza eskatu. Baina inork ez digu lagundu entrenatzaile bat bilatzen, ez jendea bilatzen. Egiten ari diren esfortzua ez da ikusten.

N. Azken hitzak taldearentzat.

N. A. Pena handiz, lehen hitzak taldetik joan beharra duen Igor Castrori. Giltzarria izan da taldean. Igorri milesker gugatik egin duenagatik. Iaz inork gudan sinisten ez zuenean, bera hor zegoen, morala igotzeko. Taldeari esker eman, hau beste pauso bat izango dela esan nahi nieke. Ez dakit nora joango garen, baina neskei esan niretzat adibide direla eta jarraitu egin behar dugula. Bestalde, jendea etor dadila neskak animatzera. Jokalariak ere behar ditugu.

Iruinen bi lagunentzat otordua

Juanan Barcenilla izan da Usurbil KE eskubaloit elkartekoek burutzen duten errifa zozketan azken sariduna. 7.872 errifa zenbakiaren jabeak bi lagunentzat otordua irabazi du Iruin sagardotegian.

Ohi bezala, eskubaloit elkartetik zozketan parte hartzen duten jatetxe eta herritarrak eskertu nahi dituzte.



Autobus Orduetegia

Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

Table with 10 columns: Donostia, Urbil, Usurbil, Orio, Zarautz, Zarautz, Orio, Usurbil, Urbil, Donostia. Rows show bus departure times for various routes.

Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Table with 10 columns: Donostia, Urbil, Usurbil, Orio, Zarautz, Zarautz, Orio, Usurbil, Urbil, Donostia. Rows show bus departure times for weekends and holidays.

LURRALDE BUS ASTIGARRAGA-HERNANI-LASARTE-USURBIL. Irteera Usurbil, ASTELEHEN-LARUNBATERA, Irteera Astigarraga, ASTELEHEN-LARUNBATERA. Includes route schedules for the Lurralde Bus line.

TSST autobusak ZUBIETA-LASARTE. LARUNGUNEAN, Zubieta-Lasarte 7:25 / 08:25 / 09:25 / 12:40 / 13:40 / 14:40 / 18:40 / 19:40 / 20:40. Includes LARUNGUNEAN, JAIEGUNETAN and TSST BUS-TAXI schedules.

Tren Orduetegia. Zarautz Orio Usurbil Donostia, Donostia Usurbil Orio Zarautz. Includes schedules for various train routes and contact information for Euskotren.

Ospitalera autobusak astelehenetik ostiralera (lanegunak). Usurbil -> Ospitaleak, Ospitaleak -> Usurbil. Includes routes to Ospitaleak and from Ospitaleak to Usurbil.

Agenda !!

Otsailak 3 osteguna
- Andatza Mendizale Taldearen
batzarra 19:00etan Artzabalen.

Otsailak 4 ostirala
- Santa Ageda bezperako kantu-eske-
ak. 18:30ean Zubietako Kaxkapen.
19:30ean Mikel Laboa plazan.

Otsailak 13 igandea
- Vicky Vikingoa pelikula Sutegin.
17:00etan. 5 urtetik gorakoentzat.
Sarrera 2 euro, egunean bertan.

Goardiako farmaziak

Otsailak 3, osteguna
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Otsailak 4, ostirala
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Otsailak 5, larunbata
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 6, igandea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 7, astelehena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Otsailak 8, asteartea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Otsailak 9, asteazkena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 10, osteguna
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Otsailak 11, ostirala
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Otsailak 12 larunbata
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Otsailak 13, igandea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

* Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak
irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpurua, Latxunbe Berri, 11, Hernani
Telefono zenbakia: 943 336 077.

“Piztien Pare” diskoa aurkezten jarraitzen du Mendeku Itxua taldeak

Helduagoa, borobilagoa eta indartsuagoa. Hala definitu zuten euren lan berriena. Duela hilabete gutxi, Durangoko Disko eta Liburu Azokaren bueltan aurkeztu zuten Mendeku Itxua taldeak “Piztien Pare” izeneko diskoa. Geroztik hainbat aurkezpen kontzertu egin dituzte. Otsailean ere, batetik bestera ibiliko dira.

Diskoa argitaratu ondoren, Ander Aizpuruak NOAUA!ri egindako adierazpenetan azaltzen zuen “Piztien Pare” disko izenburuaren esanahia: “diskoari izen hori emateak zentzu bikoitza du; gizakia piztien pare tratatua egotearen inguruko protesta abestia da eta disko osoak ere zentzu bera du”.



MENDEKU ITXUA TALDEKO KIDEAK.

OTSAILAK 5 LARUNBATA, 22:00h
Tolosa, Bonberenea gaztetxea
Mendeku Itxua + Switch

OTSAILAK 19 LARUNBATA, 22:00h
Donostia, Guardetxea
Mendeku Itxua + OST + Korumbá

OTSAILAK 26 LARUNBATA, 22:00h
Urruña (Lapurdi)
Mendeku Itxua

400 kilotik gora jaso dira, Saharara bidaltzeko

Amaitu da Sahara bidaltzeko azken asteotan burutu den oinarrizko gaien bilketa. Guztira, 400 kilo arroz, azukre, lekadun, sardina, atun-latak eta konpresa jaso dira. Horretarako, lau bilketa gune finkatu zituzten, seigarrenez elkartasun ekimen hau antolatu duten Lasarte-Oriako Saharar Herriaren Lagunak taldeko eta Usurbilgo Elkartasun Taldeko kideek: Aliprox eta Dia saltokietan, baita Udarregi ikastola eta Haur Eskolan ere. Datu azpimarragarri moduan, konpresaz betetako bi kaxa betetzea lortu da. Antolatzaileek ekimenean parte hartu duten herritarrek eskertu nahi dituzte.

Babes ofizialeko 58 etxebizitzak oinarriak, alegazio epean

GAOk urtarrilaren 27an berri ematen zuenez, Sekaña eta Agerreazpi eremuetan eraikiko diren babes ofizialeko 58 etxebizitza, garaje eta trastelekuen esleipenerako oinarriak hasieraz onartu ostean, alegazio epean daude. Erabakia argitaratu zen egunaren biharamunetik, zortzi lan-egunetz luzatuko da alegazioak aurkezteko epea. 58 etxebizitza hauek udaberrian eraikitzen hastea espero da, zozketa ere urte garai beretsuan burutzea aurreikusia du Udalak, apirilean. Zerrendetan izena emateko aukera hil honen bukaeran zabalduko da. Interesa duen herritarrari, aurrez Etxebiden izena ematea aholkatzen zaio.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.com

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

ETXEBIZITZA

- Santuenean etxe bat alokatzen da. 679 366 415.
- Etxebizitza alokatzen da Santuenea kalean, 3 logela eta altzariak ditu. 943373185 / 635209230.
- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan, 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatuta. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitua. Tlf: 686969112
- Kaxkoan etxebizitza salgai. Hiru logeladuna, bi komun eta trasteroarekin. 685 731 792.
- 90 metro karratuko pisu bat daukagu salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, bi komun eta 7 metro karratuko ganbara bat. Oso eguzkitua eta bizitzaren jar-zeko moduan dago. 699680265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu).
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 130.000 euro. 665 736 896 (Inaki).
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegia ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat salgai Alfaron (Errioxa). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herriatik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela txime-nearekin, sukaldea, komuna, portxea. 675702428 (gauze).
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro. gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitua eta berri-tua. Interesatuak deitu: 637225620.
- 95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 141.000 euro. 943 36 98 35 (21:00etatik aurrera).
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatu nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailen. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- 5 plazako Roller karabana bat daukagu salgai abantza eta gainerako akzesorioekin. 3500 euro. 676453176.
- Txaramuntto auzoan 15 metro karratuko garaje itxi bat alokatzen da, 85 euro. 661 618 970.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- 33m karratuko lokal bat alokatzen dut Atxegalden 280 eurotan. Sarrera egokia. 943373414
- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajejan, ondo zaindua. 622369646.
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

LANPOSTUAK

LAN-ESKAERAK

- Emakume bat behar da haurrak zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. Interesatuak bazuade 615756893.
- Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabilza. Banaketa afaritarako garaijan egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabilza. Nahiago dugu Usurbilgoa eta euskalduna izatea. Interesatuak deitu 676355635 telefonora.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrek emateko prest egingo al zinatzete? Hala bada, pasa zaitetz Udarregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.

LAN-ESKAITZAK

- Herriko emakume euskaldun bat eskaintzen da pertsona helduak eta gaixoak zaintzeko. Ordutegi malgua (egun-zein gauze) eta prezio ekonomikoak. 687348223.
- Emakume esperientziaduna eta erreferentziak eskaintzen da gaudetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123
- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 626344882.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrek ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltsaritza lanetan aritzeko. 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, arratsalde, baita jende nagusia edo gazteak orduka zaintzeko ere. Telefono zenbakia: 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona

- helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- 23 urteko mutila. Usurbilen lan bila dabil barrako zerbitzari edo sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko urte osorako. Lanean berehala hasteko: 622 065 461 (Alex).
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Inaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. 656446835.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Mendi edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klase partikularrek emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- 11 husky siberiar txuri oparitzeko. 649906678, Arantxa
- Urtarrilaren 16an Andatza mendian (Puelako bidean) mendiko txamarra mutilarena, urdin iluna, galdu dut. 657702038.
- Umea eramateko "mendiko motxila" erosiko nuke. 647973854.
- Hemengo intxaurrek salgai, prezio onean. Telf: 943 67 11 60. Edurne.
- Su-egurra salgai modu onean. 689937338 Jesus Mari.
- Wii kontsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopia kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Garantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikulu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Inaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoak. Maketa bat entzungai daukat. 690784113



Kriston hotza egon arren, seguru gaudek gure bihotzetako sua horko ziegarraino iritsiko dela eta hire barru guztia eta, jakina, hire belarriak ere bero-bero jarriko dituela. Zorionak agiñarra!



Zorionak Mikel!

Santa Ageda bezperan 6 urte betetzen dituzu,

zorionak eta muxu handi bat etxekoen partez pottoko!



Zorionak Nora!

Dagoeneko 3 urte egin dituzu, muxu handi bat

politta etxekoen partetik. Txokolate eta bizkotxoekin ospatuko dugu!



Zorionak Nahia!

7 urte beteko dituzu igandean. Etxekoen partez,

mila muxu! Askok maite zaitugu, amak, aitak eta Paulak.



Zorionak Intza!

Otsailaren 9an egingo dituzu 11 urte.

Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partez.



Zorionak Julen! Otsailaren

lean egin dituzu 4 urte.

Muxu bat eta besarkada handi bat aita eta amaren partez. Zorionak eta ondo pasa!

LATAILLADE ITURGINTZA

GASA BEROKUNTZA MANTENIMENDUA ETA KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
piater konbinatuak

TABERNA

TXOTX!!



Tel.: 943 365 031

Mugikorra: 670 027 731

Santuenea



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta igande
eguerdian IREKITA
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserría Ereñotzu - Hernani

Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867



SAIZAR

Betiko Sagardoa



Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel. 943 362 228

www.sidrassaizar.com

ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81

ERRETEGIA • NEKAZALTURISMOA

ARRATZAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Egunero irekia.

Arratzainzar Baserría
info@agroturismoarratzain.com

Tel: 943 36 66 63
20170 USURBIL



☎ 943 36 12 29



Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com

AGINAGA

Sagardotegia

Urte osoan txotxetik

Estrata kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta Faxe: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68

a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com



AURTEN ALDAPARIK EZI!

Hurbilago txartelarekin ordainduz gero

Deskontua urtarrilaren 15etik otsailaren 28ra.



hurbilago

Usurbilgo Merkataritza eta Ostalaritza Elkarteak

